

do naigabearen bitaartez, aurkituko dot neure barruan Erreñu santu au, bertan badaukat zure espiritu ta gogoa.

X. Baña zer egin daiket nik, launa obligetako, zu ezartera zeure espiritu gozo ta santua luur puzka onen gainera? Nik dodan, ta nazan guztiau ezta zure gogokoa; eztaut neugan ezer bere zure gustokoa izan leiteanik zeure graziaakaz ostein. Ez dakust neugan neure pena ta doloreak baiño zeure penaakaz irudirenbat daukan gauzarik; Begira bada daroadazan penaak, eta itsaroten deusteenak. Begira launa, zeure miseriakordiako begi ezarritsu bategaz zure esku santuak ezarri deustazun zauriak! O neure salbagile maitetu dozuzana *trabajoak* zeure eriotzaan! O laungoiko egin ziñeana gizon *padezieta* gizonagaitik penarik andieenak! O laun andi artu zenduana gizatasuna,

edo gureriko gorputza *padezieta* bertan gure pekatuak merezi estueen gatsak? O laungoiko altargiña maite dozuzana gorputz geioki edo nekatuak, zein autu zenduan zeuretzat gorputz nekez ta pezan ingiratueena; egizu gorputza zeure *gustokoa*

ez bakarrik berak merezi dabelako, bada izanda zure arerioa, ezpada daroazan neke ta gatsakgaitik, zeintzuk izan leitezak bakarrik zure amodioaren diña; maitetu egizuz bada, eta nire *trabajoak* konbidau naieezala ni bisitetara; baiña preteetako nire barruan zu eukiteko lekua, egizu, launa, dirudian legez nire gorputzak zuria, pekatuakgaitik daroadazan penceetan, alan izan dedila nire arimea zuriaren irudikoa egonaz triste pekatuagaitik, edo zure kontra egin ditudan *ofensaak* gaitik, *padezieta* dodala modu onetan zeugaz, eta zeuk legez ain gorputzean zein arimaan, neure pekatu, ta ofensaak gaitik.

J. A. MOGUEL.

PASKAL-EN GOGAMENAK

IX. Orain artean izan naz gorra, ta nagia zure *abisu* gozo ta deietaral Zure agindu eta dotrina santuak ondo baiño entzun da gorde bearrean, edo iazki naz eureetara, edo izan naz ardurabagako ta nagia. Zuk, launa, Zerutik ekarri zenduan dotrineak ziraustan gauza bat, eta nik juzgeetan neban bestera. Zuk, diñozu, zorionekoak negar ei giten dabeenak, eta zorigaistokoak *konsuelo* artean bizidireanak, barriz nik bestera, zorigaistokoak negar egiten dabeenak, eta tñito zorionekoak atsegin da *konsuelos* bizi direanak, nik neukazan zorionekotzat munduko fortuna, ondasun, fama, eta zaratea eukeenak osasunagaz batera, eta zegaitik neukazan oneek zorionekotzat? Goreetan zi tueelako kriaturak berba baten, zu *ofendietan* zenduee zalako, au da, eukeelako era, eta erraztasun geiago goratuteko luurreko atseginakaz, zuri zor iatzun amodioaren kaltean. Autor dot launa, teztot euki osasuna mesedetza beragaz zu obeto serbidu zinadazalako, edo *projimoaren probetñu* ta onean bear geiago egin neialako, ezpada *estimau* dot osasnea neure arimearen kalterako, *estimau* dotberagaz mundua gose-tearren neure atsegin da guraari bi debagaak obeto kunplitearren. Mudau eguiz uz bada launa, nire biotzaren guraari usteldu ta galduak; aidatu egizuz nire adinaren eretñi ta uste okerrak, eta bardindu egizuz nire guraari ta pensamentu deungaak, zeure pensamentu edo eretñi santuakaz. Siniztu deidala nazala benetna zorionekoa ingiratuten nabenean esturazunak, pena, geiso, ta preminaak; bilatu eragin deidala gatsak ez mundua, zeu baiño, eta eragotzirik gorputzeko naigabeakaz mundua goseetea, garbitu egizuz nire eretñi ta guraariak izan ditezak zureen gisakoak, eta modu onetan bilatu zaidazan neure barruan bakarrik zu zariona ondasun, osasun, atsegin, eta egia benetako ta bakarrak zerren zure erreñua dago bakarrik zeure *fieleen* artean, eta zarratu deustazun ezkerro munduaganako bidea, bitzen deustazuna geiso e-



DONE MARTIN

Onkerioleto Martiri

GIPUZKOAKO SEMEA (1)

(1) Onkeriol onen bizitza J. Artolak antolatutako itz neurtuetan argitaratzeko asmoa genduen, baiñan bere jaiet-erria Beasain edo Bergara izan zan ziurtu gabe dagoen ezkerro, obeko degu irakurleen iri-tzira utzi.

gez. Eztot nik eskatzen librau naizula *doloreetatik*, zerren au dan Santueen saria, eskatzen dodana da *eznaizula abandonau* edo itxi *naturalezaren* peneetan zeure *espirituaren* laguntasun da *konsolazinoe* bagarik, zerren au litzatean ludegu, edo fede bagakoen *maldizioa*. Eztenik eskatzen egotea *konsuelos* beterik, pena bagarik, zerrren au dan gloriako *estadu*, edo bizimodua; eztot eskatzen egotea penas beterik *konsuelo* bagarik. Iudegu ta Jentil fede bagakoen gisaan; eskatzen dodana da gauza bi aldabatera, *sentidu* daidazala *naturalezaren* penaaik neure pekatuak gaitik, eta zure *espirituaren konsolazinoiak* zure *grazia* gaitik; bada auße da Kristinauaren *estadu* egiazkoa, eltzeeko gero penaren apurrik eztaben bizimodu gloriara Zerueta. Zure seme bakar Iesus mundura bialdu baiño leenago, *naturalezako* penaz beterik egoan mundua *konsuelo* bagarik; baiña orain O laungoiko *amoretzua*, *konsolau* ta goratuten donoz zeure *fielak* zure seme Iesusen *grazia* gaitik, eta betectan dozuz Santuak zoriontasun guztiz garbiaz zure seme bakarraren glorieetan; mala edo *gradu* oneetatik eroan eta amaitu gura izan dozu zeure obra andia, librau nozu lenengo *estadutik* ekarri naizu bigarrenera, eldu naitean irugarren gloriakora. Bai arren Zeru leitako Aita gozua, auße da neure arimea guztitik eskatzen deusudan mesede ta *grazia*.

XII Ez egizu arren *permitidu*, launa, ni egotea gogorturik alagiña, zein da *konsiderau* ezkerre zure arimeatriste eriotzeraiño, eta zure gorputza ilik nire pekatuak guztia egotea ni gozatu bagarik daukadazan penaaik gaitik, bai arimaan, ta bai gorputzean. Gauza lotsagarria baiña sobra sarri ikusten dana kristinauakgan, baita nigan bere dariozula zuri odolezko izerdia gure pekatuak gaitik, egon gura izatea guk gorputzeko atseginen artean; eta arako kristinau zeuretzakotzat dagozanak, sikatu zireanak *bautismoan* munduari zuri bakarrik iarraitzearen, egin dabeenak iuramentu Eleiza santearen aurrean zeugan bizi, eta zeugaz ilteko, sinizteen dabeenak munduak *persegidu*, eta il zaituala, autor dabeenak artu zenduala zeure gainean laungoikoaren aserre eta gizoneen *krucdade* eta gortasuna gu pekatutik aldendutearren; diñoenak zu zareala ostia eder gure osasunagaitik *entregau* ziñana; dazabeenak munduko atsegin da pekatuak direala zure *trabaju* ta peneen motibo ta *kausa*, eta zure *borreruak*, da gauza arrigarria, diñot au guztiau dazaucen kristinauak maitetutea mundu au, gozatu nai izatea ainbeste ondamenti ta pena dakarreezan atseginetan. Ikusiko bagendu seme batek maite dabela bere Aita onaren eraila deungea, diarduala palageetan aregak trateetan, beragaz ian, beragaz olgau, ta goratzen dala, zelan begiratuiko geunskio seme oni? Zer esan da penzauko genduke beragaitik? Ze amodio eutsala beragaitik *sakrifikau* zan Aita onari? bada zelan *konsolau* ta gozatu giñaitetz gu munduagaz? Iakin ezkerre berau izan dala neure Aita ta laungoiko gozoaren benetako erailtea? Aita maiteoneek eroan bere personaan nire gatseen penea, eta nik maitetuko nitukez bere penaaik erekarri deutseezan atsegin deungaak? Eskerrik asko, launa eragotzi deustazulako neure geisoan osasuneko denporaon nituan atsegin ta pensamentu ipinten minduenak eriotzearen keizeetan.

J. A. MOGUEL.

PASKAL-EN GOGAMENAK

XI Egidazu, launa, mesede erastea nire peneen gainera zeure *konsolazinoiak*, *padezidu* dodan kristinau le-